




CVCEPHOTO

Vasco de Camping Elkarteak CVCEPHOTO nazioarteko mendi jarduera argazki lehiaketa antolatu zuen. COVID-19 pandemiaren edizioa izan da aurtengoa, eta gizartean kalte askoz larriagoak eragiteaz gain, diziplina honetako argazkilarien mugikortasuna mugatu du. Hala eta guztiz ere, parte-hartzeak behera egin badu kopuruari dagokionez, lehiaketako irudien kalitatea berriz ere bikaina izan da. Parte hartu duten argazkilari guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, beraien laguntza eta irudi eder horiek jazartzeko pertseberantzia eta sormena gabe, honelako ekitaldi bat ez litzateke posible izango.



Era berean, Ierro hauen bitartez omenaldia egin nahi diegu CVCEPHOTOko hiru parte-hartzailerik, 2020 zoritxarreko horretan desagertu ziren hainbat edizioen osteko lagunei. Beren giza mailaz gain, zalantzarik gabe, beren ondare artistikoa utzi digute, lehen lerrotik natura basati eta boteretsuari, batzuetan izugarri boteretsuari, begirada pertsonal eta berezia. Gure oroitzapena, beti, Paulo Garikano, Ralf Gantzhorn eta Tontxu Gonzalezentzat, haiek gabe, CVCEPHOTO ez zen inoiz izango den bezalakoa.

Zazpigarren edizioak 58 herrialdetako 372 egileren lanak bildu zituen, eta guztira 952 argazki aurkeztu zituzten.

Irabazlea Marcin Ciepielewski poloniarra izan zen, "The X" argazkiarekin, bigarren saria Alex Buisse frantziarrak irabazi zuen, "Moulin" lanarekin eta hirugarrena Alessandro Cantarelli italiarrak irabazi zuen "Lavaredo 's Gloria" argazkiarekin.

Ohi bezala, mendiko bi zinemaldi kolaboratzaileen sariak jaso ditu lehiaketak: BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia, saria Jan Zahula argazkilari txekiarrantzat izan da, "The Edge of Guillotine" argazkiagatik, eta FIFAD saria (Festival International du Film Alpin Des Diablerets) Simon Carter australiarrantzat, "The Man Who Sold The World" argazkiagatik.

Gainera, ohorezko 15 aipamen eman genituen: Alex Buisse frantziarrari; Christian Pondella estatubatuarrari; Christoph Jorda eta Klaus Fengler alemaniarrei; Lachlan Gardiner australiarrari; Piotrek Deska poloniarri; Rainer Eder austriarrari; Ricardo Alves portugaldarrari eta Pablo Pérez, Michael Helsing, Juan Montero, Jose Allende, Javier Urbón, Carlos de Cos eta Diego Caballero espainiarrei.

Sari banaketaren ekitaldia maiatzaren 29an izan zen, 18: 00etan, Donostiako Antzoki Zaharrean, jendearentzat irekitako ekitaldi batean, edukiera murriztuarekin. Bertan, Rainer Eder argazkilari sarituaren dokumentala ikusi ahal izan genuen, baita bere eta Marcin Ciepielewski irabazlearen presentzia eduki genuen. Beste saritu batzuk ere gerturatu ziren egun horretan. Goizean, "TOPO argazki topaketak"- en edizio berri batean izan ziren guztiak, beren lana publikoarekin partekatuz. Aldez aurretik Club Vasco de Campingen lekua erreserbatu behar zen. Saritutako argazkiak ikusgai egon ziren Elkartearen egoitzako aretoan maiatzaren 27tik uztailaren 31ra arte, eta, hortaz gain, 20 irudi zoragarrien aire

zabaleko erakusketaz gozatu genuen, 2X2m formatuan,
Boulevarden, maiatzaren 27tik ekainaren 20ra.